



emari

2015eko urria · 2 zenbakia
EUSKARAREN ARNASGUNEETATIK SARERA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN agerkaria



Euskarazko akten aldeko epai guztiei helegiteak jarri dizkiete

ORAIN ARTE ALDEKO EPAIA JASO DUTE SEI UDALERRI EUSKALDUNEK, ETA GUZTIEI HELEGITEA JARRI DIE CARLOS URKIJOK

Udalek aktak euskara hutsean bidaltzeko eskubidea dutela adierazi duten sei epaiei helegitea jarri die Carlos Urkijok, Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak. Urriaren hasieran jakin zen Alegiako Udalaren aldeko epaiari helegitea jarri ziola Espainiako Estatuaren abokatuak, eta egun batzuk geroago heldu da helegiteen jakinarazpena gainerako bost udaletako abokatuen eskuetara. Amezketza, Gaintza, Arama, Bergara eta Elgeta dira udal horiek. UEMAko kide dira guztiak, eta irailean jaso zituzten Donostiako Epaitegiak plazaratutako aldeko epaiak. Udal horiek, UEMAko kide diren dozenaka udalek bezala, euskara hutsean bidaltzen dituzte aktak eta erabakiak Gobernu Ordezkaritzara, eta horren aurka jo zuen honek. Irailean plazaratutako epaia argia zen, udalerrri euskaldunen aldekoa, EAEko Euskararen Legeak horretarako eskubidea ematen diela nabarmenduz.

Zuzendaritza batzorde berria eta lehendakari berria du UEMAK urriaren hasieraz geroztik

HURRENGO LAU URTEOTARAKO ZUZENDARITZA BATZORDEA HAUTATU ZUTEN UEMA-KO KIDE DIREN UDAL ORDEZKARIEK, AZPEITIAN EGINDAKO BATZARREAN

Legegintzaldi honetako lehen batzar nagusia egin zuten UEMAko kide diren udal ordezkariak urriaren 3an, Azpeitian. Besteak beste, hurrengo lau urteotan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen jarduna gidatuko duen zuzendaritza batzorde berria hautatu zuten, eta baita lehendakari berria ere. EHBildu koalizioko, EAJko eta independenteen ordezkariak daude berriro ere zuzendaritza batzorde berrian.

Zuzendaritza batzordea

HONAKOAK DIRA ZUZENDARITZA BATZORDEKIDE BERRIAK

LEHENDAKARIA:

· Josu Labaka. Azpeitia. EH Bildu.

LEHENDAKARIORDEA:

· Onintze Amezaga. Gatika. EAJ.

GAINERAKOAK:

· Lierni Altuna. Aramaio. EH Bildu.

· Mikel Ansotegi. Aulesti. EH Bildu.

· Amaia Azkue. Berastegi. EH Bildu.

· Maider Arrieta. Lesaka. EH Bildu.

· Andere Enbeita. Muxika. EH Bildu.

· Nekane Iribar. Zarautz. EAJ.

· Manuel Labaka. Beizama. Independentea.

· Eneka Maiz. Etxarri Aranatz. EH Bildu.

· Josetxo Mendizabal. Zestoa. EAJ.

Doakotasunarekin laukoiztu egin dira ikasleak Orioko euskaltegian

EUSKALTEGIAK INOIZ IZAN DUEN MATRIKULAZIO-KOPURU HANDIENA DU IKASTURTE HONETAN, 60 IKASLE BAINO GEHIAGOREKIN. BESTE UDAL BATZUK ERE ILDO HORRETAN ARI DIRA LANEAN, EUSKARA DOAN IKASTEA BERMATUZ

Orain arte euskara ikasteko diru-laguntza ematen zuen Orioko Udalak, udal gehienek bezala. Orain, ordea, Zestoak aspaldi abiarazitako bideari heldu, eta euskara ikastea doan izatea bermatu du, eta jasotako erantzunak aurreikuspen guztiak gainditu ditu Orion. Taldeak osatuta, gainera, sekula gertatu ez dena ere egin behar izan dute: matrikulazioa itxi. Udalak zituen aurreikuspenak bikoiztu egin ditu aurtengo matrikulazioak.

Doakotasunaren aldeko apustua egin eta jaso duten erantzunarekin gustura daude Orion, baina argi dute ez dutela ezer asmatu. "Guk Zestoako eredu ariora ekarri baizik ez dugu egin. Zestoan urteak daramatzate eredu hau aplikatzen eta euskaltegiaren aldeko apustu indartsua egiten, oso emaitza txukunarekin. Guk haiena ikusi, aztertu eta kopia egin dugu. Meriturik bada honetan, zestoarrena da", nabarmendu dute Orioko Udaleko Euskara Zerbitzutik.

Zestoa, aitzindari

Zestoa aitzindaria da euskara ikastea doan izan dadin. Urte asko eta asko daramatzate horretan, aspaldidanik. Hamabost urte baino gehiago dira orain beste herrientzat eredu dena Zestoan errotu zenetik, herriak euskalduna izaten segi dezan euskalduntzeak



Doako euskalduntzeari dagokionez, Zestoa eredu izan da urte askoan. Ikasturte honetan, gainera, euskaltegi berria dute. Argazkia: Danbolin.

duen garrantziaz ohartuta, horretarako ahalik eta erraztasun gehien emanez.

Egindako bide emankorrari segida emateko, ikasturte honetan, gainera, baliabide berriak ere badituzte. Zehazki, hilabete honetan bertan inauguratu dute Zestoako euskaltegia, Kultur Etxean.

Beste hainbat herri ere doakotasunaren bidetik

Zestoak abiarazitako bideari ikasturte honetan heldu dio Oriok, eta erantzun nabarmena jaso du ikasleen aldetik. Oriok baino lehenago, ordea, doakotasunaren aldeko apustua egin dute beste zenbait udalek ere. Azpeitia eta Tolosa dira nabarmenenak.

Altzo, Berastegi, Berriatua, Ikaztegieta edo Segura bezalako herri txikiagoetan ere, besteak beste, ikasturte honetan herrian bertan euskara ikasleen taldeak sortzeko ahalegina egin dute, ikasleek herri handiagoetarako euskaltegiara joan behar izanik gabe, beti ere euskara ikastea doan eskainiz. Herri horietan erantzun ona izan du deialdiak, eta ikasle taldeak sortu dira ikasturte honetarako.

Hizkuntza eskubideak bermatzeko neurriak hartzea eskatu du Arartekoak Nafarroan

NEURRI ERAGINKORRAK HARTZEA ETA PLANTILLA ORGANIKOA EGOKITZEA ESKATU DIO NAFARROAKO GOBERNUARI, JASOTAKO 593 ESKAEREI ERANTZUNEZ



Gaia landu duten erakundeetako ordezkariak jasotako erantzunaren balorazioa egin zuten urriaren hasieran. Argazkia: guaxe.eus

Etxarri Aranazko alkatea eta UEMAko zuzendaritza batzordeko kidea den Eneka Maizek Nafarroako Gobernuaren Osasun Sailari eta Hezkuntza Sailari zuzendutako kexa aurkeztu zuen uztailaren, 592 eskaerarekin batera, Etxarriko osasun zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea aldarrikatuz. Kexa hori Behatokian eta Nafarroako Arartekoan ere aurkeztu zuen.

Jasotako kexa eta eskaerei erantzunez, Nafarroako Arartekoak adierazi du legeak eskubide hori aitortzen diela herritarrei. Horrela, Nafarroako Gobernuak Osasun eta Hezkuntza Departamentuei iradokizun hauek egiten dizkie:

- Batetik, kexaren sinatzaileek nahiz gainerako herritarrek hala erabakitzen dutenean, osasun zerbitzuko eta Emakumeen Laguntza Zentroko langileekin harremanak euskaraz izateko eta orientazioa psikopedagogikoa euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko neurri eraginkorrak hartu ditzatela lehenbailehen.

- Bestetik, Departamentuekin elkarlanean, uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretuan oinarrituta, plantilla organikoa egokitzea. Gaur egun, Etxarriko OOLTari dagokionez, 18 lanpostutatik 5ek bakarrik dute euskara eskakizuna (% 27,7) eta Emakumeen Laguntza Zentroan bakar batek ere ez. Arartekoak dio dekretu hori egokitu beharko litzatekeela eremu euskalduneko errealitate soziolinguistikora, herritarren eskaerara eta herritarrei aitortutako hizkuntza-eskubideetara.

Esanak

Mikel Irizar (Berria, 2015-10-13).

"Bi elementu daude. Bat, teknikoak: herri txikien mankomunitate bezala sortu zen Uema, zerbitzuak partekatzeko; horretara mugatuko balitz, ez luke zentzu handirik udal handiagoak egoteak. Bestetik, politikoa: lubakitik dator. Uemako bazkideak gehiago izan direnez kolore batekoak, Uemak ere ondorioz hartu du kolore bat. EAJ ez da beti eroso egon. EAJko alkatea duten udaletan posizio ezberdinak daude. Nire proposamena da Uema indartzea, orain arte baino zerbait gehiago izatea. Defektuz euskaraz funtzionatuko duen Gipuzkoa horretan, Uema oso inportantea da. Baldintzak zein dira? Batetik, Uemak nahi izatea; bestetik, Uemak kolore politikoak orekatzea edo lausotzea, denak eroso egotea. Badut esperantza. Horren alde egingo dut".

"Behar dugu diskurtso multzo bat, denok eroso egoteko. Egon daiteke diskurtso euskaltzalea, euskaraz zentratua: orain arte gehien zabaldu dena da, baina badago pertzepzioa esparru batean duela argia, eta itzal asko sortzen dituela bueltan. Ideia da beste foku zabalago bat piztea, diskurtso demokratikoa, berdinzalea: pertsonen aitortu askatasuna hizkuntza hautatzeko, baina gogoratu askatasunak berdintasuna eskatzen duela".

© Euskal Herria

«Bada kezka apalaldian gaudela, eta hausnarketa hasi nahi dugu»

Mikel Irizar • Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariaren elkarrizketa politikari berritzaileak lehen berritzaileak, diskurtso berriak eta berritzaileak. Miarren Irizar alkateak, berriak euskaraz eragin behar du, orain dela. «Lehenetsia baino erabakigarria izan daiteke»



Mikel Irizar: "Defektuz euskaraz funtzionatuko duen Gipuzkoa horretan, UEMA oso inportantea da"

UEMA INDARTZEAREN ALDE EGINGO DUELA NABARMENDU DU, "KOLORE POLITIKOAK OREKATZEKO ETA DENAK EROSO EGOTEKO"

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendariaren elkarrizketa argitaratu zuen 'Berria' egunkariak urriaren 13an, eta Mikel Irizar argi aritu zen euskalgintzaz, hizkuntza politikaz, arnagunez eta UEMAZ, besteak beste. Gari Goikoetxea kazetariak galdera zehatzak ere egin zizkion Udalerri Euskaldunen Mankomunitateaz.

'Euskaraz bizi nahi dut!', Azpeitian eta Orendainen

FILM LABURRAK UEMA-KO HERRIETAN ZABALTZEKO EKIMENAREN BAITAN

Kontseiluak eta Donostia Zinemaldiak elkarlanean antolatzen duten 'Euskaraz bizi nahi dut!' film laburren lehiaketako irabazleak herriz herri zabaltzeko eta bide batez euskarazko zinema sustatzeko ekimenaren baitan, UEMAK eta Kontseiluak egindako eskaintzari erantzuten ari dira zenbait herri. Euskarazko film laburrek hurrengo asteotako kultur egitarauaren lekua dute dagoeneko Azpeitian eta Orendainen, baina heldu dira filmak doan jasotzeko eta emateko eskaera gehiago ere. UEMAKo kide den edozein herriko film labur hauek herrian eman nahi izanez gero, eskaera egin eta euskarri digitalean eta kalitate onean jasoko dituzte filmak, herriko aretoetan doan eskaini ahal izateko.



argazkia: Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza

Arnaguneen Eguna ospatu dute lehen aldiz Lea-Artibain

LEA-ARTIBAI EUSKARARI ELKARTEAK ANTOLATUTA, LEA-ARTIBAIKO ARNAGUNE EGUNA OSPATU DUTE MARKINA-XEMEINEN, ARNAGUNEAK ZAINTEAREN BEHARRA ALDARRIKATUZ

Euskararen arnagunea da Lea-Artibai eskualdea, baina oraindik ere egiteko asko dutela nabarmendu zuten urriaren 17an Markina-Xemeinen ospatutako Arnagune Egunean. Eskualdeko herrietan gehiengo euskaraz dakiena izanda ere, oraindik, askotan gaztelaniara jotzeko joera dagoela agerian utzi zuten Lea-Artibai Euskarari elkarteak. Egun osoko egitarauaren baitan, hainbat ekitaldi antolatu zuten, festa giroa eta aldarrikapena uztartuz, herriarrak kontzientziatu nahian.

"Arnasguneak zaintzeko, politika eta lege ausartak behar ditugu"

Josu Labaka (Azpeitia, 1978) da UEMAko lehendakari berria pasa den urriaren 3az geroztik. Harrezkero hainbat elkarrizketa eman ditu hedabideetan, UEMAren erronkak aipatuz eta elkarlanaren garrantzia nabarmenduz. Bareratik ederki ezagutzen duen erakundea da UEMA, udalerrri euskaldunetan fokoa jarraitubaitalaneanazkenurteotan. Gaur egun, Azpeitiko udal gobernuko kidea da. Zehazki, Euskara, Kultura, Zerbitzu Orokorrak eta Parte-Hartzea sailletako zinegotzi arduraduna da. Herri mugimenduetan ibilbide luzea egin ondoren, azken urteotan komunikazioan aritu da lanean.

ZEIN DIRA UEMAREN ERRONKAK ETA HELBURUAK LEGEGINTZALDI BERRIRAKO?

Euskalgintzatik sortutako erakunde publikoa da UEMA. Gainera, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako udalerririk biltzen dituen mankomunitate bakarra da: 73 udalerririk osatzen dute gaur egun. Azken batean, Euskal Herriko udalerririk euskaldunen arteko sarea da, udalerririk horiek euskaldunak izaten jarrai dezaten, eta gainerakoentzat ere akuitu eta eredu bihurtuz, nolabait. Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eta euskaldunok bigarren mailako herritarrak ez izateko, ezinbestekoak dira politika aurrerakoi eta ausartak, eta UEMA horien aterkia da.

AZKEN URTEOTAN UEMAK ZERBAIT NABARMENDU BALDIN BADU, ARNASGUNEEN GARRANTZIA DA. ZER DA ARNASGUNE BAT?

Euskara nagusi den eremua da arnasgunea. Hizkuntza biziberritzeko funtzio garrantzitsua betetzen dute. Normalizaziotik hurbilen dauden eremuak dira, eredugarriak gainontzekoentzat. Udalerririk euskaldunetz aritzen gara normalean, arnasguneak aipatzen ditugunean, baina beste adibide bat jartzearren, Bilboko Kafe Antzokia ere arnasgunea da, noski, eta arnasguneari dagokion funtzioa betetzen du hiri handian. Arnasguneek



euskarari egiten dioten ekarpena egundakoa da. Herri honen birrikak dira, nolabait esateko. Horiek berriaz zaindu behar ditugu. Arnasguneoi dagokigu euskararen normalizazioan liderrak izatea, normalizaziotik hurbilen gauden eremuak garelako, eta eredugarriak gainontzekoentzat. Baina arnasguneak zaintzeko politika eta lege ausartak ere behar ditugu, gaur egungoekin herren ibiliko garelako beti.

LEGE BABESA ARI ZARETE AIPATZEN BEHIN ETA BERRIRO. EUSKARA OFIZIALA DEN LEKUETAN LEGEAK EZ AL DU BADA BABESTEN EUSKARAZ ARITZEA?

Ez du inolako zentzurik euskara ofiziala den lekuetan euskararik ez dakiten herritarrak sortzen eta onartzen segitzeak. Bizikidetzak kontua ere badela iruditzen zait eta, beraz, oso kontuan hartzekoa. Erakunde publikoari dagokigu herritarrei eskubideak bermatzea, legez, benetako bizikidetzak aldarrikatu eta benetan denon eskubideak bermatu nahi baditugu. Gero etor daitezke berdintasuneko politikak eta abar, baina legeak aurretik joan behar du beti, ausartiaz. Galderari erantzunez, argi dago ezetz:

euskara ofiziala den lurraldean oraindik ere ezin dugula euskaraz hitz egin, gehiegitan. Argi dago: ofizialtasuna ez da benetakoa.

KOLORE ETA ALDERDI EZBERDINEN ELKARLANA ERE NABARMENDU DUZU.

Euskaraz bizitzeko eskubide kontua dela onartuz gero, hortik aurrerako guztia elkarlanean adostu daitezkeen bidea da. Ez dago besterik: benetan aurrera egin nahi badugu, bai alderdien artean, eta baita erakunde publikoen eta herri mugimenduen artean ere, elkarri eskua luzatu eta konfiantzan aritu behar dugu.

EMARI

2015eko urria

Argitaratzailea: UEMA
komunikazioa@uema.eus

UEMA.EUS

Twitter: @UEMA_eus
Facebook: UEMAeuskaraz
Issuu: UEMA_eus